



Lehen aldia da itsasoa ikusten...

...duela

...duena





Biak dira zuzenak. Bai adierazpen-perpaus osagarria (-eLA), bai erlatibozko perpausa (-eNA). Hortaz:

- ✓ Lehen aldia da itsasoa ikusten **duela**.
- ✓ Lehen aldia da itsasoa ikusten **duena**.

Bestalde, beste modu honetara ere antola daiteke erlatibozkoa:

- ✓ Itsasoa ikusten **duen** lehen aldia da.

Ikus ditzagun orain beste zenbait adibide:

- Lehen aldia da... -eLA
 - Lehen aldia dut hiri honetan jausten **naizela**.

Mendekoste gereziak, Jean Etxepare Landerretxe, 1962
 - Lehen aldia zen nik bertsolariak entzuten **nituela**.

Odolaren mintzoa, Fernando Aire "Xalbador", Auspoa, 1976
 - Lehen aldia zuen ontzi batean zangoa ematen **genuela**.

Metsikorat, Jean Elizalde "Zerbitzari", XX. mendea

○ **Lehen aldia da... -eNA**

- **Lehenengo aldia zen aitonaren etxean nengoena.**

Artistakume baten erretratu, Dylan Thomas, 1999. Euskaratzailea: Koro Navarro

- **Bigarren aldia zen egun hartan beheko suaren gaineko koadroan begiak itsasten zituena.**

Ordaina zor nizun, Joxemari Urteaga, 2001

- **Ez da lehen aldia zure kontra mintzatu direna; ez eta azkena ere, ainitz bizi bazara.**

Jesu-Kristoren imitazioea. Mixel Xourio, 1720

○ ...-eN lehen aldia...

- Huraxe zen Maxek telefonoz deitzen **zion** lehen aldia.

Loroaren teorema, Denis Guedj. Euskaratzailea: Jon Muñoz, EHU, 2005

- Errukarria Perrette! Hura zen Maxengandik bereizi **zen** lehen aldia...

Loroaren teorema, Denis Guedj. Euskaratzailea: Jon Muñoz, EHU, 2005

- Askorentzat, hiri handi batean bizi **diren** lehen aldia izaten da.

Eskola kulturantzunetan irakastea eta ikastea, Elizabeth Coelho.
 Euskaratzailea: Iñaki Iñurrieta, EHU, 2016



Nolanahi ere den, -eLA perpausa erabili da gehien literatura-tradizioan.

Azken batean, denbora-erreferentzia adierazten duten beste zenbaiten mota berekoa da hizpide izan dugun -eLA perpausa. Hona horietako beste batzuk:

- Badira aste batzuk zuri beha nagoela.
 *Badira aste batzuk zuri beha nagoena.
- Bi egun dira ikusi ez dudala.
- Badu urte bat Kattalinek erretzeari utzi ziola.
- Urteak ditu hemen dabilela.



Gehiago jakiteko:

Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordea (2005). “1.3.2. -eLA menderagailua duten adierazpen-perpaus osagarriak” In *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-V (Mendeko perpausak-1: osagarriak, erlatiboak, konparaziozkoak, ondoriozkoak)*, Bilbo, Euskaltzaindia, 50. or.

Petirena, Patxi (2011): “1.3. Menderagailuen inguruko zenbait zalantza”. In *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak*, EIMA, Gasteiz, 33. or.